

SECCIÓN AMENA



IZKIRIMIKIAK

Ez det nai Domingokiñ
 ama, nik ezkondu,
 infernurikan danik
 sinistu nai ez du,
 ta ez liteke iñoiz
 mutill ori ondu
 bada denak gezurra
 dirala esandu.

Infernurik ez dala
 aldio Domingo?
 sinistuko duela
 ezkontzian diot:
 bada erakutsiko
 diogu guk biok.

*
 * *

Bi ichu zeudelarik
 bide bazterrian,
 limosna eskatuaz
 Jaunan izenian,
 gizon bat gelditurik
 beraren aurrian
 pezeta bana zioten
 jarri beatz-tartian.

Jaun on ura andikan
 aldendu zanian
 dio batek besteari
 boz chit isillian:
 Adiskide: Jaun ori
 ezagutzen aldek?
 Ikustez bai aspaldi,
 chit maiz pasatzen dek.

ENRIKE ELIZECHEA.

